

2002ko apirilaren 25a • XXII. urtea



**Amets Arzallus
hirugarrenez**

03

Apirilaren 14an Donezteben burutu zen Nafarroa eta Iparraldeko Bertsolari txapelketa eta hirugarren urtez segidan Amets Arzallus suertatu zen txapeldun.



**Liburuaren Eguna
greba eguna**

06

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatu da, baina Nafarroako liburutegien egoera dela eta, ez ospatzea eta liburutegiak ixtea erabaki dute liburuzainek.

04

Bertizko Natur Parkea ezagutzen





Almaco Baztan

ETXEGINTZA ETA SANEAMENDU MATERIALAK

© 948 580 104 / 948 580 366 • ELIZONDO



↓ Zeramikak



↓ Velux-ak

↓ Tximiniak

MUEBLES A METS

Sarrera BERAtik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537 • Fax. 948 631 443



**Sukaldeak
Egongelak
Logelak
Bainugelak**

Larubat arratsaldetan irekia

4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko



DATUAK...

• 18 urtetan, hirugarren aldiz segidan eskuratu du Amets Arzallusek Nafarroa eta Iparraldeko bertsolarien txapela. Azkena, apirilaren 14an Donezteben jokaturako finalean eskuratu zuen.

• 615,5 puntu lortu zituen Hendaikoak. Sustrai Colinak bakarrik puntu bat guttiago erdietsi zuen; Xabier Silveirak 598, Xabier Legarretak 582, Estitxu Arozenak 577'5, Bittor Elizagoienek 564'5, Joxe Juan Zubieta «Etxabe»k 558 eta Iñigo Olaetxeak 543,5 puntu eskuratu zituzten.



Amets ARZALLUS *Hendaiko bertsolaria*

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

«Hainbat bertso eta epailerekin puntu bateko aldea berdinketa da bertsoetan»

Jon ABRIL

Hiru txapelketan parte hartu eta hirugarren txapela burura josia duzu. Espero zenuen?

Beno, saioa bukatutakoan ez nuen garbiegi ikusten. Silveira eta Sustrai aitzinean ikusten nituen, baina beraien kartzeleko saioa entzun gabe nengo. Gainera, poto bat ere egin omen dut eta hori kontatu gabe nuen. Orduan, zalantza gehiago izanen nituen. Hala suertatu da eta gustora hartu dut txapela.

Lehia, halere, estu-estu joan da...

Bai, bai, puntu bat Sustrairekiko, hori enpatea da bertsoetan. Hainbeste bertso eta hainbeste epailerekin hori ez dago bereizterik. Orduan, txapela bakarra izaten da eta niri tokatu zait, baina hurrengoan horrelako kasu batean bitan moztu beharko da. **Azken aldian Euskal Herriko txapelketak pixko bat markatu egin zaitu, kanpotik begiratuta bederen. Arantza ttiki hori bederen kendu duzu.**

Bai, nik ez neukan damu edo min gehiegirik Euskal Herriko txapelketari. Belodromoko atetan gelditzeak

«Ligarekin, Iparraldean lehenbiziko aldiz gazteek eta ez hain gazteek elkarrekin kantatu dugu»

beti uzten du honelako penatxo bat, bestela ez ginateke aurkeztuko. Baina, azken finean, Nafarroakoa beste txapelketa bat gehiago bezala hartzen nuen, ez nuen Belodromoko edo Euskal Herriko mendekatu nahi, ez ezer. Beste txapelketa bat gehiago zen, nerea egitera nentorren eta Sustraiengandik puntu bat gorago utzi naute, hurrengoan igual bat beharago izango da. Gaur horrela izan da, eta hobe.

Taula gaineratik ezberdin ikusten dira gauzak, ez dira bertso guziak segitzen... Halere, goi mailako bertsoak joan diren inpresioa utzi du final honek, kategoriako finala izan dela...

Ez dakit, agian hori entzuleak esan beharko luke, guk baino gehiago. Ni behintzat ez naiz kapaz izan saioa nola joan den gehiegi segitzeko, baina hala esaten badu jendeak hobe

denentzat, bai Nafarroako bertsolaritzarentzat, bai guretzat eta bai etorri diren guzientzat.

Formula berria izan da aurtengoz, bai Ipar Euskal Herrian, baita Nafarroan ere Liga gisara jokatu dira lehen saioak eta gero txapelketa. Batetik saio guttien dituztenentzat trebakuntza ekarri du horrek. Zuentzat beharbada nekea edo gustora esperientziarekin?

Guk hasieran pentsatzen genuen nekea izan zitekeela, baina nik uste oso esperientzia positiboa izan dela. Iparraldean lehenbiziko aldiz denek, gazteek eta ez hain gazteek elkarrekin kantatu dugu. Aurrera begira errepikatzea dela uste dut, herrialde edo eskualde bateko bertsolaritzari halako lotura bat segurtatzen diolako eta merezi izan du.

18 urterekin hiru txapel. Ez al da zama ikaragarria?

Zama pixka bat bada, bai. Baina azken hiru urteotan niri suertatu zaidan bezala, gerta liteke beste hainbat urtetan ez tokatzea. Orain artekoak ongi etorriak, baina hurrengoan denak zerotik abiatuko gara.



EDURNE ZUBIETA

Ostaitz enpresak turismo bulegoa ere kudeatuko du Bertizen.

OSTAITZ ENPRESAK GESTIONATZEN DU MARTXOTIK

Bertizko Natur Parkea: aisialdirako eskaintza zabala etxetik hurbil

Rakel GOÑI


Martxoaren hasieratik Bertizko Parkearen kudeaketa "Viveros y Repoblaciones"ek hartu du bere gain, Ostaitz enpresari lan hori emanaz. Iruñea, Legasa eta Lesakako lau neskek osatu dute enpresa berria, eta ilusio handiarekin ekin diote lanari. Euren ustez, «eskualdeko jende askok ez du Bertizko Parkea ezagutzen, ezta bertan eskaintzen diren zerbitzuak ere». Hori dela eta Ostaitzen helburuetako bat, eskualdeko jendearengana hurbiltzea izanen da. Autoen aparkalekuaren ondoan turismo bulegoa dago. Inguruetan pasaiaetan ibiltzeko landa ederrak daude. Gosea izanez gero, handik 50 bat metrora, bazkaltzeko mahaiak erabili ahal izanen ditu bisitariak. Lorategiaren ba-

rreanean Naturaren Interpretazio Zentrua da bisitarik gehien jasotzen dituen eraikina. Bere ondoan "Kotxetokia dago", ikus entzutekoak izaten dira bertan bertzeak bertze. Etxerik ederrena bertan dago ere: Jauregia. Urte osoan erakusketak eta biltzarrak antolatzen dira bertan. Interpretazio Zentruaren gibeletako aldetik aterata, metro guttira, "Zabala etxea" taldeendako aterpea dago eta honen ondoan ikaztegia eta kisulabea bisita daitezke.


BERTIZKO NATURAREN INTERPRETAZIO ZENTRUA

Bertizko Parkearen barnean Naturaren Interpretazio Zentrua dago. Gaur egun parkeko bizitzaren erdigune da bisitariendako bilgune baita. Hiru so-

Bertizko Natur Parkea, izenaz ezaguna da gehienentzat, baina eskualdean askok ez dute sekulan bisitatu edo, bisitatu zutenetik izugarri aldatu da parkearen izaera. Martxoan enpresa berri batek hartu du bere gain parkearen gestioa, Nerea Ezkurra iruindarra, Enara Larralde lesakarra, eta Monika Migeltorena eta Josune Ibarra legasarrrek Ostaitz osatu dute. Euren helburuetako bat, eskualdeko jendea parkera erakartzea izanen da. Bi hilabeteotan laneko martxa hartzeko aukera izan dute, dena den lehendik parkeko langileak izatea abantaila nabaria izan da lauentzat.



Bertizko Naturaren Interpretazio Zentruaren lehenengo solairua.



RAKEL GOÑI

Enara eta Josune Ostaitzeko kideak

tu zutenean, hautatuak izan ginela erran ziguten.

Parkeko langileak zineten lehendik, abantaila izan da?

Abantaila ikaragarria izan da, azken finean hori baita bultzatu gaituena erabaki hau hartzera. Segurtasun handia eman digu lehendik hemen lan egiten aritzea.

Nolakoa izan da hasiera?

Nahiko gogorra, batez ere San Jose zubia eta Aste Santua izan ditugulako hasi eta segidoan. Jende aunitz etorri da eta ezin izan gara aunitz zentratu. Orain hasi ga-

hobetu nahi dugu eta eskualdeko jendearengana gehiago hurbiltzea.

Hori da hutsik nabariena, eskualdeko jende gutti datorrela Bertizera?

Agian bai. Denok ezagutzen dugu Bertizko Parkea, eta ezaguna denez ez gara hurbiltzen. Horregatik saiatu nahi dugu zonaldeko jendearengana hurbiltzen. Urtero ikastetxeetako haurrak etortzen dira, eta urtean behin Arkupeak-eko kideen bisita izaten dugu. Baina bertezela, bakarka jende gutti heldu da.

Noiz ospatuko da Ingurugiroaren eguna?

Ekainaren 5ean Ingurugiroaren Eguna ospatuko dugu ikastetxeetako haurrekin. Ekainaren 9an «Ateak zabalik» ekitaldia ospatuko da nahi duen guziarentzat. Egun honetan sarrera debalde izanen da, eta egun osoan ekitaldi ugari izanen dira Bertizko Natur Parkearen inguruan.

«Eskualdeko jendeak Bertizko Natur Parkea ezagutzea nahi dugu»

Nola erabaki zenuten Bertizko kudeaketa hartzea?

Ustekabean izan zen. Lehendik zegoen enpresak uzten zuela bagenekien, baina ez ginuen pentsatua. Plegua argitaratu zenean, lau langile elkartu ginen eta ira-

kurri genuenean taldean aurkeztea pentsatu genuen.

Zeintzuk ziren betebeharrak?

Proiektu bat aurkeztu behar genuen, Natur Parkea nola kudeatuko genuen azalduz. Bi astetara erabakia hartu-

ra ikasten gestio arloan zer egin behar den.

Etorkizunera begira zein helburu dituzue?

Lehenik eta behin ikasi nahi dugu, eta gerora begira ingurugiro hezkuntza landu nahiko genuke. Kalitatea ere

lairutan banatua dago. Beheko solairuan harreralekua eta argibideak daude. Nafarroa eta konkretuki Bertizko ingurugiroaren informazioa paneletan, erretroproiektoreetan eta ordenadoreetan aurkituko du bisitariak. Lehen solairuan hiru atal lantzen dira: lurzorua, ura eta oihana. Make-tak, joko interaktiboak eta paneletan ematen den informazioa gaztetxo-
nen gustokoa izan ohi da. Bigarren solairuan Zentroan ikus daitekeenaren azalpena multimedia ikuskari batean ikus daiteke.

IBILBIDEAK ETA BISITAK

Bertizko Jaurrerriaz solasten denean guttienez 126 espezie exotiko dituen lorategia datorkigu burura. Baina Bertiz hori baino gehiago ere bada. Lehenik eta behin lorategiko ibilbideak berriki aldatu zituzten guztia hobe ikusi ahal izateko. Bertzalde nahi duenak Jaurrerriko pistetan zehar ibil daiteke Mendiko Bizikletendako egin diren bideetan. Aizkolegiko Jauregiraino, parketik 12 bat kilometrorra, joatea gustatzen zaie aunitzi. Eta azkenik, oinez mendian barrera ibili nahi dutenek ere aukera paregabea dute. Bertizko oihanak 1.869 hektarea ditu, parkeko hedaduraren %92a.

BERTIZKO FAUNA ETA LANDAREDIA



Bertizko Jaurrerrian atlantiar baso mistoa da nagusi. Orokorrean erran daiteke eremuaren beheko aldean, haritza (*Quercus robur*) dela zuhaitzik ugariena. 500 metrora igotzerakoan gaztainondo eta bagoek guztia estaltzen dute. Tarteka lurrik azido eta eguzkitsuenetan ametzak aurki daitezke. Lorategian sartuta sekuoia da bere altueragatik, mirespen


handien sortzen duen zuhaitza. Banbu basoan altxapeka dira bisitari aunitz. Txina, Japon eta bertze herrialde aunitzetako landareek koloreztatzen dute lorategia, batez ere udaberri aldera.

Animaliei dagokienez ugaztunak dira ugarietak. Jaurrerri osoan xagu, sator, soromuxarra eta antzeko animali tikiak bizi dira. Tamaina handiagokoen artean sagarria eta kattagorria no-



nahi ageri dira basoan. Azeria, azkonarra, basurdea eta orkatza urriagoak badira ere, tarteka ikus daitezke Bertizen.

Anfibio, narrasti, hegazti eta arrainek Bertizko faunaren aberastasuna handitzen dute. Garaiaren arabera batzuk edo bertzeak ikusi ahal izanen dira. Interpretazio Zentrura hurbil daiteke informazioa eskatu nahi duen oro.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Gofii. **Berriemak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Gofii.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Ake-larre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerrek, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Liburutegien egoera

Guztiondako kalitateko liburutegi publikoak eskatu nahi izan ditugu apirilaren 23ko grebarekin

Bera, Lesaka, Doneztebe, Baztan eta Leitzako liburutegiak

Nafarroako bibliotekariok urte luzez aritu izan gara Liburuaren eguna ospatzen. Honetarako ezin konta ahala ekitaldi sustatu ditugu: liburuak kalera atera ditugu, denden erakuslehoietan paratu, erakusketak prestatu, errezitaldiak, ipuin-kontaketak, hitzaldiak eta abar antolatu... Aurten, aldiz, apirilaren 23an ez ospatzea egitea erabaki dugu, eta honetaz gain, egun horretan liburutegiak itxeko asmoa dugu. Kontua ez da bat-batean motibazioa eta interesa galdu ditugula; ezta hurrik eman ere. Are gehiago, liburuekin, irakurtzearekin eta bibliotekekin dugun konpromisoa inoiz baino handiagoa da, eta horrexegatik konturatu gara sosik eza eta aurrekontu-eskasia ezin ditugula bete orain arte egin dugun moduan, hau da, boluntarismoaz eta irudimenaz soilik. Nafarroako liburutegi publikoak modernizatzeko, hori baino askoz ere gehiago behar dugu: ezinbestekoa da herri-administrazioaren sostengu irmoa; izan ere, biblioteken gainera legea eta hau garatuko lukeen erregelamendua nahitaezkoa baita, aurrekontu-bulkada ere bai, eta zer esan bibliotekari-irudia duin bihurtu beharraz. Ziklo bat amaitu da. Kalitateko zerbitzua ematearen alde egin duguna baino gehiago, ezin dugu egin laguntzarik gabe; beraz, guztiz ezinbestekoa da egoera aldatzeko benetan ahalmena dutenak lanean serio hastea. Hamarkada huts batean pasatu gara liburutegi-sare onegarria izatetik, biblioteka-eskaintzarik anakronikoen duen erkidego autonomoa bilakatzen (bagara, adibidez, ikus-entzunezko baliabide gutxien eskaintzen ditugunak), prozesu desfasatuenean (bagara ataza eta prozesu automatizatu gutxien ditugunak), jendaurreko ordutegi laburren ditugunak, biblioteka zentral zaharkituena ditugunak. Hau dena egiten ez den bitartean guk ez dugu deus gutxi ospatzeko eta horrexegatik hain zuzen ere, erabaki dugu apirilaren 23a bezalako egun sinbolikoan greba egitea. Zuen-gana jo dugu gure protestaren nondik norakoak jakinarazteko. Halaber, zuen laguntza eskatu nahi dugu sinaduraren bidez. Liburutegi publikoek bizi duten egoera kaskarra ez delako bibliotekarien kalterako soilik: liburutegi publikoak gure, gurea guztiona.



Langile faltagatik irakurleei ez diegu dedikatu behar duten denbora

Sonia LOPEZ Baztango liburutegia



Bera eta Lesakako liburutegien postuak erdaldunek har dezakete

Jose Luis HUARTE Leitzako liburutegia

Dirua baino gehiago, langileen faltan gaudela uste dut. Irakurleari ezin diegu dedikatu, behar duen denbora guzia. Gure lana liburuak utzi eta hartzea baino zerbait gehiago ere bada, eta horrexegatik irakurle bat baino gehiago dagoenean ezin diegu behar duten zerbitzua eman. Espazioari dagokionez, dudarik gabe Baztango liburutegia da egoera larrienean dagoena. Badirudi liburutegia Kultur Etxe berrira eramanez dutela. Niri halere, ez didate ofizialki deus erran. Agintarien arabera 2004rako izanen da han. Dena den liburutegi berri eta handi bat izateagatik, bertze langile bat hartzen ez badute, ez da zerbitzua gehiegi hobetuko. Ordenagailu gehiago egotea eskertuko genuke, tokia bagenu noski. Gero eta etorkin gehiago baliatzen da zerbitzu hontaz, emailak bidaltzeko adibidez. Gure lana egiteko asti gehiago bagenu udan landetxeetara datozen bisitarientzako zerbait prestatuko nuke. Liburutegitik bideoak har ditzakete, diskak... Egoera kezkagarria da eta liburuaren aste osoan protesta ekintzak egingen ditugu. Sinadura bilketari ekin diegu liburutegietan.

Erregelamendu bat egin dezaten eskatu dugu, ez dago liburutegiak arautzeko legerik eta hutsune horrek izugarritzko kaltea egiten digu. Aurrekontuak oso baxuak dira. Iaz 35 milioi bideratu ziren liburutegietara, aurten berdin gertatu da. Kopuru horiekin ez dago ezertan inbertitserik. Euskal Autonomi Elkartearen pertsonako 6 euro aurrikusi ditu Gobernuak, Nafarroan ordea 3 euro bertzerik ez. Afera ez da bakarrik herri liburutegia, Iruñekoa ere egoera kaxkarrean dago. Nafarroako Gobernuak onartu duen euskararen legea dela eta, Bera eta Lesakako plazen deialdia egiten denean, gerta daiteke erdaldun batek plaza ateratzea. Asteartean liburuaren eguna zen eta greba eguna antolatu genuen. Iruñean Udaletxeko Plazan eta baita Gobernu Departamenduan ere, protesta ekintzak egin genituen. Sareko 65 liburutegietatik 60k guttienez egin zuten greba. Udal liburutegietatik erdia baino gehiago. Ez dut uste grebarekin gehiegi lortuko dugunik baina gure ahotsa entzutea bederen lortu dugu. Asteazkenean protesta ekintzak egiten jarraituko dugu.

• IRAKURLEAK MINTZO •

1977. urteko 25. urteurrena

Gezurra badirudi ere 25 urte pasatu dira: non dago 1977 urtea? Atzera begiratu nahi dugu gogoan hartzeko zer susperraldia bizi izan zen Euskal Herrian. Baita Beran ere. Herri batzarren bitartez antolatzen zen diktaduraren kontrako borroka eta mugimendu honetan funtsezkoa zen langileria, langileen kontzientzia eta borroka: ez bakarrik kalean baizik eta lantoki barruan ere.

Garai hartan irakurri ahal zen «gure iraultza gida dezakeen klase bakar langileria dela, euskal iraultzabidearen bilakabidea berezia denez, euskal langileriaren alderdi nazional bat eratu behar dugula...».

Non geratu dira hitz, kontzeptu hauek? Euskadiko langileria? Oligarkia? Gaur egun ez da iadanik entzuten «Gora Euskadiko Langileria»... Sistema, hau da, sistema ekonomikoa, kasik ez

da aldatu frankismo garaitik, eta demokrazia izenekoak bakarrik formala da: lantegi mundu barruan betikoek agintzen dute eta legebiltzarrak apenas du indarra ekonomian, jakin badakigu zein inportantzia duten gaur egungo munduan erabaki ekonomikoek...

Ba... Beran 1977. urtean herri batzarren bitartez bi Amnistiaren Aldeko Aste antolatu ziren, otsailean eta maiatzean, itxialdiak (Parrokian eta Udaletxean, jende pila batek parte hartzen zuelarik, berrehun bat pertsona).

Bi manifestaldi handiak ere izan ziren: bat Beran eta bestea Lesakan. Bigarren kasu honetan egoera oso gogorra eta estua zen, Goardia Zibilak izugarritzko jipoiak eman baitzizkigun. Hurrengo egunean, nik dakidala, lehen Greba Orokorra izan zen Beran... Abuztuaren 18an Berako herriak izugarritzko harrera eman zion Asakatasunaren Ibilaldiari.

OHARRA:

Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako

25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun

Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.

Bukatzeke, lerro hauen bitartez eskerrak eta goraintziak eman nahi dizkiet parte hartu zuten Bortz Hirietako guztiei...

Juanjo IRAZOKI.

Berako Puy ostatua 15 egunez itxiaz dute

15 egunetan gazteok ez gara galduko, ez gara etxean geldituko, izanen dugu hamaika zeregin. Nahi dugun moduan, ongi pasatzen jarraituko dugu, bertan egiten ditugunak bertze edonon eginen ditugu. 15 egun barru berriz ere Puy ostatuan elkartuko gara, baina lege anker bati esker gure ostatueta jardueira «susmagarri» horiek epe muga bat izanen dute, 2'30etan akautuko dira gure irriak...

Puy ostatua ixteko lanean ibili zareten guztiei,

gazteria etsaitzat duzen orori (eltzetzuak, albintek, Gobernua, bere burua hemen sartu nahi duenari, dagokionari...) Zorionak! Zorionak zuen lanagatik, zorionak urte aunitzetako lana merezi izan dizuelako. Zorionak oraingo honetan 15 egunez ostatua ixtea lortu duzuelako (ea hurrengoan betiko den...).

Solasian, musian, dantzan, edaten, kantari, lagunekin irrian, lagunminarekin xirritan, gure herritik mugitu gabe, autoa hartu gabe, herriari bizia emanez... askatasun osoz, Puy ostatuan ibiltzea gustuko dugun gazte nahiz heldu guztion izenean, eskermila.

**Berako Puy Ostatu
bezereen izenean.**



MARTIKO
*Gure baserrietako
produktuak*

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA



Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa



© 948631076 • BERA



BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako halizariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266



H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrial
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra, 2002ko apirilaren 15a

**Bixkiak izan ditu
Leitzako Mitxelaundi
baserriko behorrak**

«Duela bederatzir urte
erosi nion behorra
Legasako Ignacio
Indart tratanteari.

Beste behin ere erditu
ditu bixkiak behor
batek Leitzan, baina bi
umeak hil egin ziren».

Juan ALDUNTZIN
Leitzako baserritarra
D. Navarra 02-04-15

«Ez da kasu bakarra,
noski, baina ezohikoa
da. Behorrak ez du
bixkien ernaldia
aurrera ateratzen, ez
da bideragarria. Ardi
eta behien kasuan bi
eta hiru ume erditu
daitezkeen bezalaxe,
behorrek ez. Horrelako
erditzeak kasualitate

hutsa dira eta hori
gertatzeko aukera oso
txikia da».

Alberto Perez de
Muniain
ITGko albaitaria
D. Navarra 02-04-15

«Bizikletarekin zinez
hasi nintzenean, 20
urterekin, "pakete" bat
nintzen. Afizionatueta
egin nuen lehen urtean
ez nuen lasterketa bat
akautu uztaila bitarte.
25 urterekin
profesionalan
debutatzea berandu
da, baina aitzinetik
kirol bizitza luzea
gelditzen zaidala
iruditzen zait».

Patxi VILA
Berako txirrindularia
D. Noticias 02-04-17

• 11 GALDERA LABUR •

**Asier APEZTEGIA Aurtizko kamioilaria****Zergatik hautatu zenuen garraiola-
ri izatea?**

Gauza berri bat probatzea bururatu
zitzaidan, eta horixe egin nuen.

**Egia al da hiri bakoitzean neska bat
duzuela garraiolariek?**

Ja, ja, ja... Nik uste dut kasu hori arran-
tzaleena dela, portu bakoitzean nes-
ka bat izatea.

Igandetan mendia edo taberna?

Goiz jeikiz gero mendia, bestela ta-
berna kafe bat hartu eta musean pix-
kot jostatzera.

**Zein da larunbat gauean juerga egi-
teko beharrezkoa den gauza?**

Lehendabiziko gauza giro ona iza-
tea, hori izanez gero dena egina da-
go.

**Bi afizio; egur taila eta pelota. Zein
nahiago?**

Lehen bi gauzak egiten nituen baina
gaur egun ia ahaztuak ditut.

Bizio bat?

Bizio asko ditut, denak bezala baino
horietako bat lanetik aparte juerga on
bat egitea.

Herriko bestak edo Bordatxo?

Herriko bestak, dudik gabe.

Kubata on bat edo kalimotxoa?

Gau osoa aguantatzeko eta juerga
on bat egiteko kalimotxoa.

Kotxea edo kamioia?

Gauza guzik bezala bakoitza bere
momentuan.

Bizitzeko herri bat?

Aurtiza noski.

Nora bidaiatuko zenuke?

Nahiko aspertua nago bertako baz-
terrak ikusteaz, ahal den guzitan kan-
pora bidaiatuko nuke.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaiak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marratzkiak
Pilareak	

'Abujardadoa' Mazioa
Zahar antzekoa Txapeatua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

TANATORIO BARTZANDARRA

Santiago 52
ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin

24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959
☎ 900 704704

gaztelu scl
iturgintza

kalefakzioa saneamendua gasa

☎ 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

OSPAKIZUNAK

Maiatzaren 12an ospatuko da aurtengo Herri Urrats

Ehun mila lagun biltzea espero dute antolatzaileek

ttipi-ttapa

Maiatzaren 12an "Herri Urrats" ospatuko da Senpereko aintziran. Aurtengo bi helburu nagusi ditu Seaskak: Hazparne eta Donibane Garaiz eskolak sortzea. Denen den, bildutako dirua ikastola guztiak kudeatzeko erabiliko da, ohi bezala. Iparraldean dagoen arazorik nagusia haurren eskariari behar bezala aurre egiteko egoitza eskasia da. Egun 2.000 haur daude Iparraldeko ikastoletan izena emanda, haurren %6. Urtero ikastolen eskariak gora egiten du; horri erantzuteko, ikasketak sortzea eta handitzea beharrezkotzat jotzen dute Seaskako agintak.



ARTXIBOKOA

Hainbat euskalzaile bilduko da Senpereko aintziran.

riek. Aurreko urteetan bezala, 80.000 eta 100.000 lagun inguru Senperen elkartzea espero dute. Egitarrak

dagokionez, berrikuntza bat izanen da. Programazioa zabaltzea erabaki da, eta herrialde zapalduetako talde

ak gonbidatu dituzte Senpererat. Kortsikako talde bat eta salsa talde bat izanen dira bertzeak bertze.

ARTEA

Amaia Gurrpidek Italiara joateko beka lortu du

ttipi-ttapa

Amaia Gurrpide margolari iruindarrak, New Yorkeko arte ikasketen beka lortu du. Denetara 15.000 € jasoko ditu udan Italiara joan eta hango margolarien lanak eza-gutzeko. Amaia Gurrpide Baztanekin lotura zuzena du, Elizondoko Futbolin Ostuan bere margo lanak ikusgai daude. Amaia 1999an ailegatu zen New York-era Iruñeko Arte Akademian ikasketak amaitu ondotik. Jadanik Estatu Batuetan zenbait sari jaso ditu, horien artean 30 urtetik beherako emakume margolarien zuzendutakoa (1.000 dolarreko sariarekin). Pen & Brush galeriak akuarela margolari hoberenaren saria eman zion. Gurrpide Brroklinen bizi da eta, National Academy of Design eta The Art Students League zentruen beka jaso ditu ikasketendako.

NAFARROAREN EGUNA

Nafarroaren Eguna Baigorri ospatuko da asteburu honetan

Nafarroaren Eguna ospatuko da apirilaren 27 eta 28an Baigorri.

Basaiea elkarteak larunbatean Migel Sagaseta omenduko du. Sa-

gasetak Luzaideko dantzak bildu zituen orain 25 urte. Baigorri, Tuter eta Baztango Dantzariak arituko dira bertzeak bertze. Ertaroko trajeak eramanen di-

tuzte. Igande goizean dantzariak, ziganteak, artisauak.... ohiko ekitaldiak izanen dira. Ondotik bazkaria eta 5etan "Agottaneko Andrea" antzezlan.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneretik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 - 607 406781



BERA

Bidasoaldeko Musika Eskolen Topaketa larunbat honetan izanen da

Isidoro Fagoaga Musika Eskolak antolatu ditu ekitaldiak

Asier GOGORTZA

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolak antolatu Bidasoaldeko Musika Eskolen II. Topaketa egingen da larunbat honetan, apirilak 27. Berakoekin batera, Irun, Hondarribia, Hendaia, Lesaka eta Doneztebeko musika eskoletako 500 bat ikasle espero dira. Larunbat goizeko 11etatik aitzin, hainbat musika emanaldi aditu ahal izanen dira aterpean (kultur etxean eta musika eskolan) baita kanpoan ere (kiroldegiko atarian eta Altzateko Plazan). Musika doinuak herri guzian hedatu ondotik, ordubata aldera Eztegara pilotalekuan bilduko dira musikari guzikiak eta han egingen da ekitaldi nagusia eta sari banaketa.



BERAKO KULTUR BATZORDEAK UTZIA

Maiatzaren 3an Belgradeko Lira dantza taldeak emanaldia eskainiko du Altzateko Plazan, arratsaldeko 8etatik aitzinera. Gure Txokoa dantza taldeak, Kultur Batzordearen eta Oreretako Ereintza dantza taldearen laguntzaz antolatu du ekitaldia. Europako folklore talde onenen artean dago Jugoslaviako talde hau. Bertze aldetik, maiatzaren 2tik 18ra Gorria pintura erakusketa ikusgai izanen da 18:00etatik 20:00etara Jamotenean. Maiatzaren 4an, erakusketarekin batera antzerkia izanen da izenburu berarekin, Oreretako Zeharko Laborategiaren eskutik.

FLASH

Liburu Eguna

Apirilaren 26an egingen da aurten ere Liburuaren Eguna, eta herrian zenbait ekitaldi antolatu ditu Lamixine Antzerki Taldeak. Arratsaldeko 7etan Antzeko Parezi-dor taldekoek Manolito Gafotas lana aurkeztuko dute eta 8etan irakurgai izanen dira zenbait herritarrek idatzi dituzten testuak, hitzaren garrantzia gaiaren inguruan.

Pui ostatua 15 egunez ixtera behartu dute

Legeak dioen ordua baino ordubete berandua go ixteagatik isuna jarri zion Guardia Zibilak Pui ostatuari orain dela bi urte. Orain isun hori betetzera behartu du Udalak, 15 egunez ostatua itxia edukiz, eta isun ekonomikoa ordainaraziz. Beraz, apirilaren 15etik 29ra itxia kontuko dute ostatua.

Bestetako kartel edo argazki lehiaketa

San Esteban bestetako egitarauko argazki edo kartel lehiaketan lanak aurkezteko epea maiatzaren 17a bitarte ireki du Udalak. Nahi duten guztiek parte hartzen ahal dute, gaitzat Bera hartuta (bestetan nahiz bertze edozein garaitan). Lanak koloretan aurkeztu beharko dira 18x24 edo 24x30 cm.ko formatuan. Sari nagusia 150,25 eurokoa da eta 120,20 euroko akzesita ere ematen ahal da.

HIRIGINTZA PLANA

Hirigintza plan berria herritarrentzat ikusgai jarriko da hiru astez

Apirilaren 22tik aitzinera Hirigintza Plan berriaren zirriborroa ikusgai egonen da Berako Kultur Etxean, nahi duten herritar guztiek heldu den urteetan arlo horretan egitekoak diren obren berri izan dezaten, eta nahi izanez gero, euren proposamenak egin ahal izateko. Hirigintza plan horretan sartuko diren proiektu nagusiak erakusten dituzten panel batzuk jarriko dituzte. Josu Goia alkateak adierazi digunez, gainera, aukera izanen da proiektuak egin dituzten arkitekturekin solas egiteko. Bidasoa, Xantel eta Zia erreken bazterrak txukundu eta pasealekua egitea, Altzate karrika oinezkoentzat egokitzea, industrialdea zabaltzea eta Agerran kamioientzat aparkalekua egitea dira, bertzeak bertze, hirigintza plan berriak biltzen dituen proiektuak.

tuak egin dituzten arkitekturekin solas egiteko. Bidasoa, Xantel eta Zia erreken bazterrak txukundu eta pasealekua egitea, Altzate karrika oinezkoentzat egokitzea, industrialdea zabaltzea eta Agerran kamioientzat aparkalekua egitea dira, bertzeak bertze, hirigintza plan berriak biltzen dituen proiektuak.

iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

IRIARTE - GOGORTZA

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

LESAKA

Txoko-Txiki ipuin eta kartel lehiaketa zabalik

Maiatzaren 3rako aurkeztu behar dira lanak Tantarumairu ikastolan

Aitor AROTZENA

Tantarumairu ikastolak «Txoko-Txiki 19» ipuin eta kartel lehiaketan lanak aurkezteko epea ireki die 6 eta 12 urte bitarteko herriko ikasleei maiatzaren 3a bitarte. Kartelak bakar-ka edo taldeka (3 lagun gehienez) aurkezten ahal dira, 42,5x30 cm.ko kartulina edo paperean, nahi diren teknika edo materialak erabiliz. Hori bai, nahitaez «2002ko kanpaldia. Ekainaren 19tik 21era Zuazan» testua agertu beharko da. Ipuin lehiaketan, aldiz, gaia librea izan da eta, adinaren arabera, hiru mailatan banatuko dira partehartzai-leak: 1. eta 2. mailako- en ipuinek orrialde bat-eko luzera izan behar dute guttienez, 3. eta 4. mailakoen ipuinek orrialde terdi eta 5. eta 6. mai-

lakoek bi orrialde guttienez.

Bortzirietako pilota txapelketa

Maiatzaren 4an, arratsaldeko 4etatik aitzinera jokatu dira udal pilotalekuan eskuz banakako lehen pilota txapelketaren finalak. Bortzirietako 7tik 14 urte bitarteko 90 pilotari aritu dira lehian, sei maila ezberdinetan, otsailean hasitako txapelketan. Ligaxka bakarrik kontutan hartuta, 247 pilota partida jokatu dira guzira.

Txapelketaren antolatzaileak Bortzirietako Pilota Elkartea sortu nahian dabilzan lagun berak izan dira. Orain elkartea legeztatze lanean ari dira eta udarako martxan izatea espero dute, Bortzirietan pilota berpizteko helburu nagusiarekin.



ARTXIBOKOA

Jesus Laguna, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta Kultura Departamentuko kontseilariak, Lesakako alkatearen eskaerari erantzunez, baimena eman dio Udal Musika Eskolari heldu den ikas-turtetik aitzinera trikitixa klaseak emateko. 2002-2003 ikasturtean, beraz, akordeoia, klarinetea, zeharkako txirula, kitarra, pianoa, saxofoia, tronpetta, txistua eta bibolinan gain, trikitixa ikasteko modua ere izan da udal musika eskolan.

FLASH

Notario berria

Nafarroako Gobernuak Lesakako notario berria izendatu zuen apirilaren 8an, foru dekretu baten bitartez. Alvaro Rodriguez Santos da kargu hori beteko duena.

Mastegiko futbol-7 txapelketa

Alebin eta benjamin mailako neska-mutikoe-ak akautu dute beraien denboraldia. Despedida gisara, hamabortzer-er herrian izan diren taldeekin batera, Nafarroako selekzioa, Donostiako Olarain eta Frantziako Dax hiriko Saint Paul taldeak aritu ziren apirilaren 14an, goiz eta arratsaldean. Benjamin nahiz alebin mailan Olarain taldea suertatu zen txapeldun. Beti Gaztekoak, laugarren eta seigarren izan ziren alebinetan eta bosgarren eta seigarren benjaminetan.

Araututako ibilaldia maiatzaren 1ean

San Fermin jubilatutako ibilaldia antolatu du Langileen Egunerako. Ibiltari-ek goizeko 9:30etatik aitzinera izan behar dute izen emateko auke-rra. Lehendabiziko bi-kotea 10:00etan biatu-ko da erretiratuen egoi-tzatik eta Igantziako bi-dean barna, Lekunea, Pikukoborda, Joandekoborda, Erretenkobor-da, Elordi, Tomasene-koborda eta Osasun Zentro-rik igaroko dira, egoitzara itzuli aitzin. Han hameketakoa izan-nen dute esperoan. Oroitarazi maiatzaren 5ean Ama eta Amatxien Egune-ko bazkaria izan-nen dutela erretiratuek.

BESTAK

Sanferminetako kartela eta programaren azala egiteko lehiaketa deialdia egin du Udalak

Udalak aurtengo Sanfermin bestak iragarriko dituzten karte-la eta programaren azala egite-ko lehiaketa deialdia egin du. La-nak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira udal bu-legoetan, ohiko sistema erabiliz.

Kartelei dagokienez, 50x40 cm-ko neurria izan behar da eta 1,5 cm.ko ertzak utzi beharko da. Pro-gramaren portada lehiaketarako, berriz, 30x20 cm.ko lanak aur-keztuko dira, 2,5 cm.ko ertzare-kin. Lan guzietan nahitaez "Les-

ka. 2002ko Sanferminak" para-tu beharko dute eta marrazkiak nahiz argazkiak izan behar dira. Kategoria bakoitzean bi sari ba-natuko dira, 320 euro irabazle-arentzat eta 160 euro bigarren-arentzat. Lehiaketara aurkezten diren lan guztiak Udalaren esku geldituko dira eta bestetako pro-graman erabili ahal izan behar dira.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
© 948 637826

ANIA
jantzeria
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zabala
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

Larrapil, Lurriztiederra eta Lakain auzoetako pistak moldatuko dituzte aurten

Jabier Indaburu izanen da Larraburua jubilatutako elkarteko lehendakari berria

Joseba eta Nerea

Azken udal batzarrean erabakitakoaren arabera baserrietako bideak moldatzeko hirurteko plana martxan jarriko da aurtten. Programa honek hiru fase izanen ditu urte bakoitzean auzo batzuetako bideak moldatzeko, bidearen egoeraren eta beharren arabera. Aurtten Larrapil auzoan kilometro bateko pista moldatuko dute, hain zuzen obra hondakinen zabortegiraino. Lurritiederra auzoan Beolako erreka bidean 550 metro moldatuko dira eta Lakainen berriz Santsiñeneko zubitik Maritoneko bordako bidegurutzerainoko bi kilometro izanen dira zolaberrituak..

Obra hauek egin ondotik, 2003an, Urritzokieta osoa, 2400 metro breaztatuko dira eta Lakkainen ere 2002an egin ez diren zatiak moldatuko dira. 2004an Gorosurreta auzoko bidea zolaberrituko da, guzi-



Udalak 902 euroko dirulaguntza Malíra

Fernando Sanzberro Arburua Malin dagoen etxalartarraren dirulaguntza eskaerari jarraikiz, udalak 901,52 euroko dirulaguntza ematea adostu du. Diru hau Kimparanako parrokiaren proiektuarentzat izanen da, bertzeak bertze Kolosoko eskolaren ekipamendua osatzeko, alfabetatze proiektu bat aurrera ateratzeko eta Fetegen eta Zalagoson erabilera askotarako areto bat eraikitzeko.

ra 1430 metro. Akautzeko, Lurritiederrako bigarren zatia, Larraburutik Meakara.

Joxe Mari Maia zinetogotziak azaldu digunez «*lehentasuna gehien erabiltzen direnei emanen zaie. Egoera orokorrean txarra da, nahiz eta puska batzuetan ez horrenbertze-*

koa izan». Bideen zabalera 3 metrokoa izanen da eta metro koa-dro bakoitza 9 euro kostako da. Finantzazioari dagokionez, udalak %80a ordainduko du eta %20a baseritarren gain joanen da, hauek erabakiko dutelarik ordainnola nola egin. Hiru urteotan quzira 8,5 kilo-

metro moldatuko dira
eta obren kostua
231.390 eurokoa
(38.500.057 pta) da.

**Larraburua
elkarteko batzar
orokorra**

Apirilaren 7an Larra-
burua jubilatuen elkar-
teak urteko batzarra bu-
rutu zuen. Larraburuko

areto nagusian juntako kideak eta hainbat bazkide bildu ziren. Tratatu zituzten gaiak joan den urteko aktaren onartzea, iazko kontuak eta aurtego aurrekontuak eta junta berritzea izan ziren. Azken puntu honi dagokionez, aldeketa nabarmenak izan dira juntan. 10 urtez Larrauruko lehendakari izan den Jose Paul Corralesek kargua utzi du eta bere partez juntan sartu berri den Jabier Indaburuk hartu du lehendakaritza. 6 urteren ondotik juntan utzi duen bertzeko kide bat Gaston Lestuzzi izan da eta bere ordeaz sartu den berria Teodoro Perugorria izan da. Beraz, hauek dira junta berria osatzen dutenak: Jabier Indaburu lehendakaria, Anuntxi Agesta lehendakari ordekoa, Manuel Agirre idazkaria, Birjinia Arburua diruzaina eta Mertxe Santesteban, Jose Paul Corrales eta Teodoro Perugorria bokalaria.



OBRA PROIEKTUAK

- ✓ **Etxe berriak eraikitzeko**
 - ✓ **Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik**
 - ✓ **Urbanizazio proiektuak**
 - ✓ **Obra-zuzendaritza**
- Udalendako
aholkularitza-zerbitzu

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hiriqintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittirica, 45 • ☎ 948 637 503 • **LESAKA**



Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

IGANTZI

Herria ezagutuz

Telefono gidari azken ukituak ematen ari zaio Euskara Batzordea

Nafarroa osoko lehiaketan Ane Sainzen marrazkia saritu dute

Oskar TXOPERENA

Jakinen duzuen bezala, herriko telefono gida ari da prestatzen herriko Euskara Batzordea. Gutunak bidali ditu etxe guzietara gida horretan agertu nahi duen guziaren baimena eskatzeko. Laister itxi behar omen dute gidaren zerrenda eta euren zenbakia bertan agertzea nahi dutenek banatutako papera sinatu eta Herrikoetxera lehenbailehen eramateko eskatu dute. Ondotik, erran bezala, etxe guzietara banatuko dute gida, auzoz eta abenez sailkatuta.

Bordak erroldatzen

Lehengoan Herriko etxeak zenbait lur eremuen birkalikazioa hasia zuela aipatzen genizuen, bordak moldatzeko zeuden arazoak kontuan hartuta batez ere. Bada orain, herriko borda guzien errolda egin nahi dute, eman beharreko pausuak da-



OSKAR TXOPERENA

Igantzikoko Abesbatzak antolatuta, Bergara aldeko gaztez osatutako bi abesbatz izan genituen Igantzin apirilaren 6ko ilunabarrean: Hodeitruk eta Gabero. Osatu berriak diren talde hauek Ejea de los Caballeroseko bilkura eza-gunetik itzultzerakoan egin ziguten bisita eta ordu betez euren kantetaz gozatzeko aukera izan genuen. Ondotik Biltokin afaldu zuten elkarrekin kanpotik etorritakoek eta bertako abesbatzakoe.

tu zehatzekin eman ahal izateko. Horretarako bordak dituztenek datuak lehenbailehen Herrikoetxean emateko eskatu dute.

Marrazki saritua

Nafarroako bertze zen-

bait haurrekin batera, Gareseko zubiari egin dako marrazki bategatik saria hartu zuen Iruñean Igantzikoko Eskolan 6. mailan ari den Ane Sainzek. Arkatza erabili zuen Anek marrazkia egiteko eta es-

kolako bidai batean ikusitako zubia marraztea erabaki zuen. Ez da igantziar baten marrazkia saritzen duten lehen dabiliziko aldia, orain dela zenbait urte Kontxi Almandozi ere eman baitzioten.



Berrizaungo Benta

Lehengoan hasitako kontua pixka bat osatzera dator oraingo zutabe hau. Erran bezala, 1851an, Iruñeako errepide egin berriari nolabaiteko probetxua kendu nahian eraiki zuten Herrikoetxeak Berrizaungo Benta. Garai hartan sosik ere ez zuenez, kontribuzio berezi baten bitartez ordaindu behar izan zuen, eta horren ondorioz sekulako arazoak izan zituen herriko jauntxoekin. Azkenean, Jose Joaquin Aginagak egindako proiektuarekin, Francisco Etxeberriak egin zituen hargin lanak eta Martin Yancik zurginarenak. Zenbait urtez kanpotarren eskuetan egon ondotik Juan Bautista Semperrek hartu zuen errentan 1800 errealetan. Urte gutti iraun zuen, ordea, Herrikoetxearen eskuetan. Pilatutako zorrei buelta eman ezinik, Benta galdutako egin zuen, eta 1866an, Juan Bautista Semperrek berak, erosi egin zion Gobernuari. Melchora Semper alabaren eskuetara pasatu zen gero, eta honen ondotik Miguel Hitarenetara, geroztik ezagunagoa den bidea jarraituz. Orain dela hamarren bat urte itxi egin zen.



Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadoreak

Igantzikoko Bentak • ☎ 948 627572 • Faxa: 948 637508

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516



Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

ARANTZA

Herri Kirol Jolasen finala maiatzaren 12an egingen da frontoian

Eskolako bi talde indarrean ari dira aurten ere proba konbinatuan

Nerea ALTZURI

Hasi da bertze urte batez Herri Kirol Jolas txapelketa Nafarroan. Apirilaren 14an Lakuntzan egin zen lehen saioa eta eskolako neska-mutikoek indartsu egin zuten proba konbinatuko txapelketaren estreina. Haur eta kadete mailako bi txapelketa jokatzaren diren arren (proba konbinatua eta sokatira) Arantza proba konbinatuan bakarrik ari da, 13 urtetik 16 urte bitarteko gaztetxoek bi talde osatuz.

Haur mailako Arantzako txokor biltzaile, zaku lasterkalari, txingalari, korrikalari eta arpanlariek eginiko saioa hoberena izan zen Lakuntzan. Bortz taldeetatik herritarrak gailendu ziren proba konbinatuan, 8 minutu eta 18 segunduko denborarekin. Ondotik Etxarri Arana, Berriozar eta Altsasuko taldeak sailkatuz. Kadete mailako proba konbinatuan, bortz

taldeetatik hirugarren postuan gelditu zen Arantza, Txantreako Eunate eta Etxarri Aranzko Andra Mari taldeen ondotik.

Igande honetan jokatuko da bigarren kanporaketa Etxarri Arana, apirilaren 28an hirugarren jardunaldia izanen da Berriozarren eta laugarrena maiatzaren 1ean Txantrean. Bada oraindik nora joan aranztar gaztetxoak animatzera!

Final nagusia, berriz, maiatzaren 12an izanen da herriko pilotalekuan, goizeko 11etatik aitzinera. Beraz, animo kirolari eta entrenatzaileei! Segur gaude final nagusian aritzeko aukera izanen dutela!

Eskolako 3. Ziklokoak Mallorcan

Apirilaren 22az geroztik Mallorcan dira eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak. Guzira, Etxalar eta Igantzik



ikasleekin batera, habortz lagun joan dira Balearretako irla honetara, Isabel Danborena Arantzako eskolako irakaslearekin. «Eskola Ibiltariak» programaren barrenean, Euskal Herria nahiz Espainiako leku ezberdinetara ateraldiak antolatzen dira urtero. Aurtengoan, herritarrek aukera izan dute ateraldi gidatueta batean parte hartzeko. Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta Renfe garraio konpainiaren ekimenez antolatutako egonaldian, Salamanca eta Toledoko ikastetxeetako gaztetxoekin batera daude Mallorcan, hilaren 29a bitarte. Itzultzean, zer nolako esperimentzia izan duten galdutako diegu, dudarik gabe!



ARGAZKIAK: GREGORIO MITXELENA

Ekaitza elkarteko egoitza honetan berriki urteko batzarra egin da eta junta berria honela gelditu da: Joxe Agustin Irigoien lehendakaria; Mikel Leitza lehendakari orde; Jose Ramon Amoros idazkaria; Luzia Iparragirre diruzaina; kirol arduradunak Martxelo Jorajuria, Inaxio Madariaga eta Pantaleon Errandonea izanen dira; elkarteko bodegaz Patxi Iturria eta Mikel Leitza arduratuko dira; eta obra eta mantenimenduko kargudunak Juan Miguel Almandoz eta Agustin Etxebeste izanen dira.



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



ALBERGEA JATETXEA

☎ 948 634179
ARANTZA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

DONEZTEBE

Igerilekuen ardura uda honetan hartzeko lehiaketa deialdia egin du Udalak

Areto-futbol txapelketaren azken partidak maiatzaren 1 eta 5ean jokatu dira

ttipi-ttapa

Udalak igerilekuak uda honetan kudeatzeko lehiaketa deialdia egin du. Igerilekuen ardura hartzeaz gain, interesatuek sarrerak kobratu, aldagelak garbi mantendu eta ostatuko lana egin beharko dute ekainaren 15etik irailaren 15era. Eskaintzak maiatzaren 3ko eguerdiko ordubata baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Hasierako prezioa 3606,072 eurokoa da (gehi BEZ zerga). Lehiaketan parte hartzen dutenek 30,05 euroko behin behineko fidantza paratu beharko dute eta igerilekua hartzen duenak 300,51 euroko behin betiko fidantza. Aurkeztu beharreko agiriei dagokionez, udal bulegoetan 9:00etatik 14:00etara jendearen eskura dauden baldintza pleguetan ageri dira.

Areto-futbol txapelketa

Azken txanpan sartua



ARTXIBOKOA

Udalak igerilekuen ardura hartzeko lehiaketa deitu du. Argazkian, udal batzarraren bilkura bat.

da Erreka elkarteak hargarrien urtez antolatutako areto-futbol txapelketa. Finalerdiak maiatzaren 1ean eta finala 5ean jokatu dira udal kiroldegian.

Erreka eskubaloit taldea

Erreka eskubaloit taldeko helduek eta jubenilek akitu dute dagoe-

neko aurtengo denboraldia. Bi taldeak sailkapenaren erdialdean gelditu dira.

Senior mailako taldeak, joan den denboraldian maila galdu eta aurtengo bigarren maila nazionalen aritu da. Hasieran, kategoria berreskuratzeko helburua zuten eta ongi hasi zuten denboraldia. Baina

jardunaldiz jardunaldi, joan den urtean bezalaxe, arazoak izan dituzte lesioekin eta azkenean sailkapenaren erditsuan gelditu dira, ez goitirako eta ez behitirako kezkarik gabe. Bertze horrenbertze erraten ahal da jubenileko gazte mailako taldeaz. Erdi aldean gelditu dira, baina beheiti-

ko postuetatik hurbilago mailaz igotzeko aukera ematen zuten postuetatik baino.

Errekako ttikienak dira lanean segitzen dutenak. Kadete mailako neska eta mutikoen ere liga akitu dute, baina igorera faserako txartelik lortu ez dutenez, orain kopan murgildu dira.

Grabatu erakusketa

Iruglas, S.L. Igantzi-ko enpresak beira, ispi-lu, granito, marmol eta bertze materialetan egindako grabatuen erakusketa larunbata arte zabalik egonen da Alhondigako erakusketa aretoan, 19:00etatik 21:00etara.

Mendi Abesbatza

Mendi abesbatzak bere lana herri-kanpora ezagutzera ematen segitzen du. Larunbat honetan, Berako Al-tzateko San Antonio elizan eskaini zuen kontzertua.



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Ameztiak karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

ITUREN

Euskararen ofizialtasunaren aldeko besta antolatu du Ibintza taldeak

Helburu horren aldeko sinadurak bilduko dira larunbateko ekitaldian

Iban ISASI

Ibintza Kultur taldeak apirilaren 27an «Nafarroa osoan euskara, gure hizkuntza, ofiziala» lelopean besta antolatu du. Helburua sinadurak bildu eta Administrazio Publiko guztiei gure eskubideak bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatzea da.

Goiz partean, ordu-
biak arte, irati saioa izanen da era guzietako programazioarekin: herriko berriak, eguraldia, horoskopoa, errezetak herritarren deiak... Arratsaldean kalejira egingen da buruhaundi eta herriko trikitilariarekin herrian barrena eta bestari amaiera emateko talo jatea Herriko Etxeko estalpean. Sinadurak bilduzko orriak irati saioan eta talo jatean izanen dira. Goizean sinadura eman nahi duenak aski du Herriko Etxeko ganbarara agertzea. Bestela, arratsaldean talo jate orduan estalpean sinatu ahal izango da.

Ipuin eta marrazki lehiaketa

Ibintza kultur taldeak, eskolaren laguntzaz ipuin eta marrazki lehiaketa antolatu du eskolako umeentzako. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 31n bukatzen da. Ipuinak gutxienez orrialde batekoak izan beharko dira eta



ARGAZKIA: IBAN ISASI

Konponketak herrian

Udalak hainbat konponketa egin ditu herrian: enbaltsetako bidean kilometro bat zolaberritu dute. Herriko plazan, posteak jarri dituzte ibilgailu astunak ez sartzeko. Karrika batzuetan ispiluak eta oinezkoiei bidea emateko seinaleak jarri dituzte. Beste aldetik, auzoetako kartelak berritu dituzte.

marrazkietan irudimena eta kolorea baloratuko dira. Gaiei dagokienez, Haur Hezkuntzakoek, nahi duten marrazkia egin ahal izanen dute.

Lehen eta bigarren mailakoek Ittunari bu-

ruzko marrazkia egingen dute. Hirugarren eta lau-
garren mailakoek «Jaxintoren udako abentura Ittunari» izenburua duen ipuina prestatuko dute eta bosgarren eta seigarren mailakoek bi

gai izanen dituzte aukerak: «Mendaur azpiko gizon misteriotsua» edo «Espaziora bidea». Maila guztietan sari bana emanen da, epaimahaia Ibintza Kultur taldeko kideek osatuko dute.

NARBARTE



Gil Bera idazleak Alfonso X Saria irabazi du

ttipi-ttapa

Eduardo Gil Bera idazleak irabazi du «Alfonso X Jakintsua» Nobel Historikoaren Saria. Estatu guztiko idazleek parte hartzen ahal dute sariketa honetan eta idazle narbarteak 42.071 euroko lehen saria eskuratu du «Torralba» izenburua duen eleberri historikoarekin. Sail honetan Espainia osoan ematen den sari garrantzitsuena da hau eta bigarren urtez banatu da. *La vida secreta de Catalina la Grande* izengoitiarekin aurkeztu zuen XV eta XVI. mendean bizitu zen Eduardo Torralba doktoreari buruzko idazlana.

MALERREKA

Harpidetza kanpaina egiten hasia da ttipi-ttapa Fundazioa

Urtean 18 euro ordaindu behar da aldizkaria jasotzeko

ttipi-ttapa

Aurretik Urdazubi, Baztan eta Areson egin duen bezalaxe, ttipi-ttapa Fundazioak hamabostekari hau egiteak eta etxetik

banatzeak eragiten dituen gastuak ordaintzen laguntzeko harpidetza kanpaina egiten hasi da. Ttipi-ttapatik telefono deia jasoko duzue urte honetan Malerre-

kan, harpidetza datuak zuzentzeko eta urteko saria (18 euro) ordaintzeko prest zaudeten galdetzeko.

Nafarroako Gobernuak diru-laguntza urtero tikiagoa da, gastuak handiagoak, eta Malerreka Mankomunitateak, eskatzen zaion laguntzaren erdia ematen du (aurten 7.336,75 €). Horregatik, gastuaren zati bat, 12 urtez aldizkaria debalde jaso duten harpidedunen gain joanen da.

BERTIZARANA

Oieregiko Iralekuen jabetza zehazteko oinarriak jakinarazi ditu Nafarroako Gobernuak

Herrilurrak eta partikularrak banatzeko araudia finkatu da gisa honetara

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Oieregiko Iralekuen Transakzio Hitzarmenaren oinarri orokorrak onetsi ditu Foru Dekretuz. Aipatu oinarrien indarrez, hitzarmen unitatetzat hartuko da partikularretako bakoitzaren notario-eskrituraren, 1999ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko datarekin, ageri diren aprobetxamendu guzien batuketak. Aipatu dataren ondoko notario-agiriak ere onartzen ahalko dira, baldin eta, Oieregiko Kontzejuaren iritziz, haien titularrak herri ondarearen kontra beraienak ez direnak bereganatzen saiatu ez badira. Honi dagokionez, etxebizitza berean bizi diren diren titular ezberdinen eskri-



ARTXIBOKOA

Oieregiko herrilurren egoera arautzeko oinarriak jarri dira.

turetan ageri diren aprobetxamenduak elkartu egingen dira.

Oieregiko kontzejuak, lur eskrituratuak beren borondatez uztearen ordain, bi aukera proposatuko dizkie es-

kubide horiek dituztenei. Herrilurretan eskubidea duen azaleraren %25 onartuko zaio partikularri, eta bere jabetzakoa bihurtuko da lehen 10 Hektareak bitarte, %12 hurrengo 15

Hektareatarako eta %5 gainerakoa. Bertzenaz, azaleraren ehuneko horiei dagokien diru ordaina, 30 pezeta metro koadroko prezioa ezarri, ordainduko zaie.

Gainerakoa herrilu-

rretan geldituko da, Oieregiko kontzejuak hura osorik eta nahi bezala erabil dezan. Handik goiti partikularrak ez du argudiatzen ahal haren gainera inolako esku-biderik. Horrela, lehenetik dauden bertako arbolak, berez etorri direnak, Oieregiko Kontzejuarendako izanen dira, eta partikularrak landatu dituen arbolak partikularreendako.

Oinarriek arboladiaren aprobetxamenduari inguruan ematen ahal diren egoerak arautzen dituzte. Honela, intxaurrondoak botatzea debekatzen dute, nahiz eta gaur egun aprobetxatzen dutenak intxaurretaz eta egurraz baliatzen ahalko diren, sari bat ordaintzearen truke.

BAR Botxo OSTATUA
© 948630052 • ZALAIN • BERA

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
© 948 630 763

Elementines
Guzia zure umearentzat
Arrue, Quinny, Maxi-Cosi, Red Castle, Tuc-Tuc, Baby Björn, Avent, etab...
Zubiaurre 3 (Renfetik hurbil) • IRUN

I CHE
MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan 24 orduko zerbitzua beilatokian eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara
© 948 637404
© 900 704704



BIDASOA Institutua

Lan etorkizuna ziurtatzeko biderik seguruena



Proiektu Mekanikoen Garapena. Proiektu-Delineantea

Gure etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. “BIDASOA” GOI MAILAKO BERRARIAZKO LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUAK hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen orori. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatuarekin. Ekipamendu hoberenak eta teknologia aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.

Institutua zentru Integrala da, eta ikerketa zein gestio sistemen esperientziazkoan aurreratua den ikastetxea izanik, aukera zabala eskaintzen du. ARAUTUTAKO FORMAKUNTZA Erdi eta Goi Mailako formakuntza zikloekin, JARRAI-PENETAKO FORMAKUNTZA lanean ari diren pertsonentzako, FORMAKUNTZA OKUPAZIONALA langabetuei integrazio aukerak emateko eta, TEKNOLOGIA BERRIETAN FORMAKUNTZA, guztiak ere dagokien erakundeek bermatua.

PRAKTIKAK

Goi Mailako Zikloetan eta Erdi Mailakoetan kalitate tekni-

tzen dira. ACE-RALIA, CYCO-BASK, MICHELIN eta beste askok guregan konfidantza jarri dute. Europako lantegietara joateko aukera ere badago, ikasleek lan munduaren errealitatea ezagutu dezaten. Italia, Frantzia, Alemania eta Finlandiako ikasleekin trukaketak egiten dira.

LAN ORIENTAZIOA

Ikasketak amaitu dituztenean, ikasleek lan orientazio eta lan munduan sartzeko zerbitzua eskura dute. LANGAI, Euskadiko enplegu zerbitzuarekin bat eginda, ikasleen ia %100ek lana aurkitzen dute. Etengabeko promozioa eta berriro lanean jartzeko zerbitzuak ikasleen jarraipena egiten du.



Produktu Elektronikoen Garapena

AUTOENPLEGUA

Hezkuntza eta Lan Departamenduak eta Diputazioaren laguntzarekin, Urratsbat izeneko proiektua martxan jarri zen. Autoenplegua bultzatzea da helbururik nagusia eta horretarako instalazioak, laguntza teknikoa eta aholkularitza eskaintzen dio proiektua martxan jarri nahi duen orori. Orain arte ikasle ohiek, tapizgintza, sukalde mobleen muntaia eta instalazioa edo Geodesia eta topografia enpresak sortu di-



Elizatxo, 10 20303 IRUN (Gipuzkoa)

Tfnoa.: 943 666 010 • Faxe: 943 615 380 • e-Posta: secretaria@bidasoahetzite.net

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioa

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Neurritza egindako arotzeriaren eta altzarien fabrikazio eta instalazioa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

SARTZEKO BEHAR DA:

DBH, IEEko 2. maila, BBB-2, LH1 edo baliokideak
18 urtetik gorakoak froga bidez

ATE IREKIEN EGUNA
Maiatzaren 8an
arratsaldeko 18:30etan
Instituta ezagutzeko manierarik egokiena
bertara etorri, ikusi eta galdetzea delako

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio ekoizpena
- Proiektu mekanikoen garapena

ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA

- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena.

ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA

- Hirigintza proiektuen garapena eta topografia-eraiketa

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Instalazio elektroteknikoak
- Telekomunikabide eta informatika sistemak
- Produktu elektronikoen garapena

SARTZEKO BEHAR DA:

Batxilergo LOGSE, LH-II, UBI edo baliokideak.
20 urtetik gorakoak froga bidez

Bidasoa Institutuak doako hezkuntza eskaintzen du. Orduetia goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara, eta arratsaldetan, Formakuntza Okupazionalerako ikastaroak ematen dira.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Punta puntako teknologiaz hornitzen da "Bidasoa" institutua. EAEn erreferenteak diren, berrikuntza teknologikoen proiektuetan parte hartzen du.

Bidasoaldean ISO 9002 ziurtagiria duen Lanbide Heziketako institutu bakarra da. Etorkizuna ziurtatzeko aposturik sendoa "Bidasoa" Goi Mailako Berriazko Lanbide Heziketa Institutua da.



Instalazio Elektroteknikoak



Telekomunikazio eta Informatika Sistemak



Hirigintza Proiektuen Garapena (Topografia)



Zurgintza eta mobleak



Mekanizazioaren Bidezko Produktzioa

GOIZUETA

Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egiteko aukera ailegatu da herrira

Askapena erakundearekin drogari buruzko mahaingurua antolatu du larunbatean Gaztetxeak

Esteban AROTZENA

Udalbiltzaren mozioa onartu zuenean hartutako konpromezua bezet, Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren (euskal karneta) agiria eskuratu ahal izateko bulegoa zabaldu du Udalak.

10:00etatik 13:00etara maiatzaren 26a arteko larunbat guzietan irekita egonen den bulego honetan naziotasun karneta egin nahi baldin bada ondorengo hiru gauza hauek eraman behar omen dira bertara: errol da edo empadronamendu agiria; tramitazio gastuei aurre egiteko erabiliko diren 12 euroko dirusarrera egin denaren agiria; karnet neurriko hiru argazki. Gai honi buruzko informazio guziaz emanen omen

dute Herriko Etxean astean zehar ere.

Gaztetxekoen ekitaldiak

Umore Onak apirilera antolatutako ekitaldien berri eman genuen azken alean. Oraingoan Gaztetxekoa aipatuko ditugu, hauek ere gogor heldu baitiote udaberriari.

Apirilaren 13an lehenengo ping-pong txapelketa jokatu zen. Pablo Mirandak lortu zuen lehenengo saria, Ibai Artola hernaniarraren kontrako finalean. 24 partaide izan zituen txapelketak. Larunbat honetan berriz, hilak 27, Askagintza erakundeko Txus Congil gonbidatu dute Gaztetxera «Drogak larrugorritan» mahaingurua burutzeko.

Zibolan bizi diren Manuel Etxeberria eta Maritxo Elizalde bikoteak Urrezko Ezteiak ospatu berriak ditu. Goian, orain dela 50 urteko argazkia eta behean, Maritxo eta Manuel beraien hamar bilobekin.



ARESO

Industrialdean eta seguruenik etxeetan ur kontadoreak jarriko dituzte

«Kanpo Zorra abolizioa» kanpainarekin bat egin du Aresoko elizak

Juana Mari SAIZAR

Industrialdean ur kontadoreak jarri behar dituzte. Zurrumurrua badabil herrian ere hasi nahi dela etxetxe gauza berbera egiten. Orain arte, urteko kopuru bat ordaintzen zen. Zaborraren tasa ere, orain ordaintzen dutenak baino

etxe gehiagori pasatuko zaie.

Botikina

Botikina berria irekitzeko Udalak kontratua sinatuko du maiatzaren 2an. Lokal hori hustutzen ari dira, behar diren konponketak egiteko.

«Kanpo Zorra Abolizioa» kanpaina

Kanpo Zorra Abolizioa kanpaina beste urte batez martxan jarri da eta Aresoko elizak parte hartuko du hirugarren urtez. Euro bat eta norberaren argazki bat nahiko izango elkarta-



ARTXIBOKOA

Etxez etxe ur kontadorea jarriko balute, orain arteko sistema —urtero kopuru bat ordaintzea— aldatuko litzateke.

sunak adierazteko. Xehetasunak aurrerago. Kanpainaren ardatz nagusia Europako Batzordeko arduradunei

zuzendutako argazki bilduma izango da, kanpo zorraren abolizioari aurpegia itzuli ez diezaioeten eskatuz.

LEITZA

Herriko bikotea txapeldun Nafarroako Haur Kantari txapelketan

Iratxe enpresak tanatorioa jartzeko baimena eskatu du

Mikel ILLARREGI

Nafarroako Haur kantari txapelketan Irati Barandiaran eta Eneitz Zabaleta, binakako sailean, txapeldun gertatu ziren finalera iritsi ondoren. Hauek interpretatu zuten kanta Mikel Urdangarinen "Egun argian" izan zen. Lehiaketa honetan, zonaldeka egiten dira kanporaketak eta Leitzari dago-kionez sei taldek, sail desbarninetan, hartu zuten parte. Martxoaren 24an ospatu zen finala eta honetan hasieran aipatutakoaz gain, Eguzkiñe Zabaleta ere izan zen bakarkakoe-tan.

Tanatorioa ireki nahi du Iratxek

Iratxe enpresak, Nafarroako hainbat eta hainbat herritan beza-la, udalari Manuel La-sarte auzoko bajera ba-tean tanatorioa jartze-ko baimena eskatu dio. Udalean aztertzen ari diren bitartean, auzotar



MIKEL ILLARREGI

Irabazleek saritzat kopa bana eskuratu zuten.

batzuk beraien kexa azaldu dute eta enpre-sarekin biltzeaz gain, fir-men bilketa burutu du-te. Udalak Iratxeri hile-riaren kudeaketari bu-ruz ere galde egin dio.

Immersoko oporrak

Hirurogeita bost urte baino gehiago du-ten pentsionistentzat,

beraien seme-alaben-tzat baldin eta %45ko ezintasuna badute- edo-ta aurre jubilatutak bai-na 60 urte beteta dute-mentzat, Immersok opo-rrak antolatu ditu hain-battokitan. Eskerak Oi-narrizko Zerbitzuan egin behar dira apirilaren 29an baino lehen edo-ta 948-510840 telefono zenbakira deituz.

Ur, belarrak eta larre sariak

Ediktu baten bitartez ura, belarrak eta larre sariak pagatzeko epe-ak ezarri dira. Boron-dadez ordaintzeko epea apirilaren 30a arte izan-n da. Maiatzaren 1etik 31a arte % 5eko gain-kargua izanen du. Ekai-naren 1etik aurrera %20aren gainkargua.

FLASH

Mendi ateraldia

Apirilaren 27an, Tolo-ñora egingen da mendi ateraldia. Ibilbidea goi-zetik izanen da eta on-doren bodegan bazka-ria. Duela urte pare bat horrelako irteera egin zen eta arrakastatsue-netarikoa gertatu zen.

Udal idazkaria

Idazkari lanetan aritzen den Eukeni Zelaia bere lana utziko du hilabe-te bukaeran, zazpi ur-tez aritu ondoren. Idaz-kari interinoa izenda-tzen den bitartean bes-te behin behinekoa izen-datuko dute, Nafarroa-ko kontzeju eta udalerr-i-en federakundeak anto-latutako oposaketetan.

Euskara teknikari berria

Lehendik esana dugu Dabid euskara teknika-riak abuztu bitartean es-zedentzia izanen due-la. Bitartean bere zere-gina Aitziber Sagasti-beltzak beteko du maia-tzaren 2tik aurrera.

Toki aldaketa

Udaletzeko obrak egi-ten hasi dira eta buru-tzen diren bitartean al-daketak egingen dira. Udal bulegoak orain "Errementene herrie" etxean izanen dira. Ba-ke-epaitegia, udaletxe-ko lehen solairuan, le-hen Korreos bulegoan. Karrape irratia, karrap-eko tabernan. Euska-ra Zerbitzua eta Eus-kaltegia, toki berean.

Pilota txapelketa

X. eskuz binakako txap-elketa plazan jokatu-ko da. 15 urtetik gora izan behar dute parte-hartzaileek eta bikote-ko 15 euro ordaindu. Partidoak larunbatetan izanen dira eta izena emateko epea apirila-ren 28an bukatuko da.

KIROLA

Laurehun korrikalari baino gehiago Jon Bru beratarak irabazi zuen XXIV. Herri Krosean

400 lasterkari baino gehiagok parte hartu zuen aurtengo kros herrikoian; umeak, jubenilak, ka-deteak, infantilak, alebinak, ben-jaminak, seniorrak eta betera-noak. Batzuk bakarka, besteak taldeka. Gizon eta emakume.

Neska eta mutil. Hantxe denak eta makina bat ikusle. Norberak berea eginez, eta bakoitzak egi-ten zuena gozagarri denentzat. Hamaika sari, eta zail da buka-tu ondoren norberak bere buruari saritzat ematen dion poza adie-

raztea. Eta aurtengoa ere joan da. Honez gero, datorren urte-rako asmo dutenentzat egutegi-ko egunak igarotzen hasiak di-ra. Beraz, "inbidi" pixka bat pa-sa zenutenentzat ez utzi gerora-ko, has zaitezte entrenatzen. Al Hau guztia antolatzen ere bazi-ren, noski... Ongi, horrela segi. Eta besteak, animatu!

BAZTAN

«Hamabi ordu eskuaraz» besta ospatuko da maiatzaren 5ean

Maiatzaren 1ean «12 ordu lasterka» izanen da Baztango herrietan

Rakel Goñi

Aitzineko Ttipi-Ttapan iragarri bezala «12 ordu eskuaraz» elkarteak ekitaldi ugari antolatu ditu apirilaren amaiera, eta maiatza hasierarako. Asteburu honetan Baigorri ospatuko den Nafarroaren Egunean, larunbatean, dantza emanaldia izanen da, Baigorri, Tuter eta Baztango Dantzariekin. Ertaroko jantziak eramanen dituzte eta musika tresnak, Txirimiak, garai berekoak izanen dira. Igandean, «12 ordu eskuaraz» taldeko kideek, «Agottaneko Andrea» lana antzeztuko dute Baigorrikoen laguntzarekin, ezker paretan, arratsaldeko borzetan.

«12 ordu eskuaraz»-eko ekitaldiak

Apirilaren 30ean Kasinoko Aretoan, Elizondon, mahai-ingurua izanen da. Partehartzaileak Imizkoz, Alejandro Arizkun, J.A. Meoki eta



RAKEL GOÑI

Apirilaren 12an Elbeteko frontoi barrenean, argazkian ikus daitezken teila puskak erori ziren. Zorionez ez zuen inor azpian hartu eta ez zen zauriturik egon. Arriskuak hor segitzen du eta ez dirudi Udalean konpontzeko prisa-rik badenik. Elbeteko gazteek sinadurak biltzen hasi dira konponketa eskatzeko. Teilatua egoera kaxkarrean dago eta teila gehiago eroriko direla ziur daude.

Agustin Olabe izanen dira. Solasteko gaia, Baztan izanen da. Maiatzaren 1ean. Baztango herri guzietan barna «12 ordu lasterka» egingen da. Nahi duen guziak parte hartu ahal izanen du. Maiatzaren 3an Ka-

sinoko Aretoan Pello Salaburu euskaltzainak hitzaldia eskainiko du. Maiatzaren 5a «12 Ordu Eskuaraz» eguna izanen da. Eguerdian Elizondoko karriketan dantzari eta musikariak ibiliko dira. Otsagi, Xube-

roa, Baigorri, Gallur eta Baztango Dantzarien taldeek erakustaldiak egingen dituzte. 14:30etan bazkaria egingen da Merkatuko Zelaian. Ondotik, eguna musika eta giro alaiarekin akituko da.

FLASH

Asier Larretxearen errezitaldia

EHGAM-ek antolatua apirilaren 26an, ortzirale honetan, Asier Larretxeak poesia errezitaldia eta performance bat aurkeztuko du Iruñeko EHGAM-en egoitzan

Dirulaguntzak

Baztango Udalak 2002ko kultur aktibitateak diruz laguntzeko deialdia egin du. Epea ortziralean akituko da, apirilaren 26an arratsaldeko 2 orduetan. Eskakera Herriko Etxean bete behar da erregistroan sartzeko. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Aktibitatearen memoria, aurrekontua eta Kultura Sailaren eskakera orria.

Arizkungo Ostatuko Elkarte

Aurreko TTIPI-TTAPAN iragarri genuen Arizkungo Herriko Ostatua moldatzen hasi zirela. Honekin batera arizkundarrak, nahiz arizkundarren seme-alabek Ostatuko kide izatea eska dezakete. 60 euro ordaindu beharko dituzte eta auzolanetan laguntzen ez duenak dagoen kuota ordaindu beharko du. Eskatzaileak 18 urte baino gehiago izan beharko ditu.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI


ARROPA DENDA
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte
ELIZONDO
☎ 948 581807 • 948 581853

LARRALDEA
SAGARDOTEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • **LEKAROZ**
☎ 948 452121

BAZTAN

FLASH



SUKALDEKO OLIOAREN BILKETA BAZTANEN

A hilabeteak

Urtarrila, martxoa, maiatza, uztaila, iraila eta azaroa

B hilabeteak

Otsaila, apirila, ekaina, abuztua, urria eta Abendua

HERRIA	ORDUA	TOKIA	HERRIA	ORDUA	TOKIA
Elizondo	9:00-13:00	Merkatuko zelaia	Lekaroz	9:00-9:30	Karriketan barna
Elbete	13:05-13:30	Karriketan barna	Gartzain	9:40-10:00	Karriketan barna
Arizkun	13:45-14:15	Karriketan barna	Irurita	10:10-11:00	Karriketan barna
Erratzu	14:20-14:50	Karriketan barna	Ziga	11:15-11:35	Karriketan barna
Amaiur	15:00-15:30	Karriketan barna	Aniz	11:40-12:00	Karriketan barna
Azpilkueta	15:40-16:00	Karriketan barna	Berroeta	12:10-12:40	Karriketan barna
			Almandoz	12:50-13:20	Karriketan barna
			Ornoz	13:30-14:00	Karriketan barna
			Arraioz	14:10-14:30	Karriketan barna

Hilabeteko laugarren ortzegunetan

Baztango Udala sukaldeko olioak biltzen hasiko da maiatzean

Ostatu eta jatetxeek bilketa berezia eska dezakete Ecogras-era deituz

Rakel Goñi

"Sukaldeko olioak birziklatzeko tenorea ere bada!" izeneko kanpaina martxan jarriko du Baztango Udalak maiatzean. Olioak harraskatik beheiti botatzea ingurumenarendako kaltegarria dela kontutan hartzea nahi da. Olio horrek urzikine kainuak ixten ditu, arratoiendako bazka da, erreka bazterretako landaredia kutsatzen du eta ur araz-


tegiatan arazoak sortzen ditu. Hori dela eta birziklatzea beharrezkoa da. Bildutako olioarekin biodiesel egingen da. Gasoleoak baino askoz kalte guttiago sortzen dituen erregaia.

NOLA GORDE BEHAR DA ETXEKO OLIOA?

Kristalezko, plastikozko, metalezko edo tetrabrik gisako ontzietan eraman daiteke. Nahi izanez gero biltzaileak

olioa hartu eta ondotik ontzia garbituko du berriaz erabili ahal izateko. Bertzenaz biltzaileak gordeko du gero ontzi hori ere birziklatzeko. Kontuan hartu beharrezko gauza da ez dela autoen olio zaharrik bilduko. Ostatu eta jatetxeek, bilketa berezia egiteko eska dezakete Ecogras-era deituz, 943 472 335 telefonoan. Argibide gehiago nahi izanez gero Baztango Udaleria ere

dei dezakezue. Olioak birziklatzera eramaten duen orori oparitxo bat emanen zaio.



XABI BALLARENA

Arizkuneneako prentsaurrekoaren irudia

OPOKA Jatetxe-Tetegia

- ☞ Jateko, gustura egoteko eta guk hautaturiko te, kafe eta txokolateekin gozatzeko aukera.
- ☞ Enkarguz eskatutako janari begetarianoa.
- ☞ Gozotegi espezializatua, partikular nahiz ostatu eta jatetxeendako.

☎ 948 45 61 65 • 649 96 41 44 • LEGASA



Gierresena

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORNOZ-MUGAIRI

ORDOKI LIKOREAK

Tel.: 948453410

Fax: 948453378

ARIZKUN

ERRETEGIA

Parrilan egindako haragi eta arrainak



ONASKA ERRETEGIA

Euskal sukaldaritza

Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE

☎ 948 45 20 88

SENPERE

Aintzirako bazterrak garbitu eta uren kalitatea neurtuko du Herriko Etxeak

Herriko bi kirolarik kantatzen dute aurtengo Herri Urratseko kantua

Franck DOLOSOR

Luzaz «ahantziak» senditu diren aintzira aldeko jendeen kezka entzun berri dituzte herriko kontseiluko zenbait presunek. 200 etxe diren auzo hortan uste da 600 herritar bizi direla, heldu baita kasik sei edo zazpi senpitarretik bat aintziratarra dela. Herriko etxeak deliberatu du bere erabakiak afixatuak izanen direla aintzira ondoan ere, animazioak prestatuko direla haurrentzat, larren garbitzea eta uren kalitatearen neurtzea hobetuko dela. Gisa honetan ur zikinen bideak xahar-berrituko dira. Bertzalde, udan herri erdialderaino astero bi bidai egingen dituen autobus bat ibiliko da. Euro bateko gostua izanen du bidaiak.

Herri Urrats maiatzaren 12an

Maiatzaren 12an ospatuko den Herri Urrats bestaren kari Oskorrik "hizkuntza herriaren



STUDIO DE LA NIVELLE

Goitian, berriki egin den Open pilota zoingehiagokaren antolatzaileak. Eskuinean, herriko errugbilariek—hemen xitoak— «Martin Borthaire» lehiaketan parte hartu zuten martxoaren 30ean.

hats" kantua plazaratu du. Diskan Iparraldeko goi mailako kirolariek kantatzen dute, hauen artean Bixente Fagoaga errugbilariak eta Amañur Alfaro mariñelak.

Maiatzeko bigarren igandean, usaian bezala milaka jende hurbilduko da herrirat eta aurtentzen bilduko den diruaren parte haundiena Ga-

razi eta Hazparneko ikastolen alde izanen da egoera arrunt txarrean direlako.

Egun osoan besta ikaragarria ospatu da Kortsikako talde bat, Oskorri eta ETBko Betizu karaokearekin bertzeak bertze.

Egonaldi zerga

Egonaldi zerga (taxe séjour) emendatuko de-



la jakitera eman da turismo bulegoak egin berri duen bere biltzar nagusian. Iaz 11.000 presuna pastu ziren bulegotik, 5.500 telefona dei hartu ziren internet guzuz. 1.250 bisita izan zituelarik. Alokatzeko gal-

FLASH

Kontseiluen bilkurak bi mintzaireretan

Euskal konfederazioak bizi publikoan eskuarari tokia haunditzeko hasi duen kanpaina segituz herriko kontseiluen bilkuren bildumak bi mintzaireretan idazten hasi dira herriko etxean.

Kirol hitzorduak

Kaiak lehiaketa aintziran ospatuko da maiatzaren lehenean, Kantziako auto zoingehiagoka 11 eta 12an izanen delarik.

Kermeza

Aurtengo kermeza ere aroaren 9an iraganen da.

deak %28z emendatu ziren gan den urtean eta gero eta jende gehiago hurbiltzen baita herrirat, udan autobus batek gan-etorriak egingen ditu Senpere eta Donibane-Lohitzuneko hondartzaren artean.

RESTAURANT MIGUEL

**Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran**

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209

SALEZONES UDANA, S. L.



**Inportaziozko leben kalitateko bakailu gaztuta
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

SARA

Plekako VI. pala txapelketaren finalak jokatu ziren

Sarako Gaztetxeak antolatutako gaupasa apirilaren 30ean iraganen da

Aña Mari eta Fred

Apirilaren 6an, Pleka trinketeko VI. pala txapelketako finalak jokatu ziren. Urtero bezala, final egunean trinketeko jabea den Duetournier familiak bazkaria antolatua zuen.

Aurtengo lehiaketak arrakasta handia izan du, 120 bikotek parte hartu baitu.

Nesketan, 2000. urteko txapeldunak izan ziren, Indaburu eta Arribillaga, 50-20 irabazi zuten Saint Martin eta Azkarraga bikotea.

Hirugarren mailan, Ustaritzeko Santesteben eta Zaldubehere 50, Sarako Loustaunau eta Dolosor, 45.

Bigarren mailan, A multzoan, Ibarburu eta Elizalde senpertar bikoteak 50, Irazoki eta Salha azkaindarrek, 45. B multzoan Ziburuko Murillo anaiek 50, Urruñako Dagerre eta Ziburuko Journade, 36.

Lehen mailan, Housset eta Oiarzabal kanbotarrek 50, Ezkurra eta Terrer urruñarrek 35.

Bertzalde, Battit Duperru urruñarrak eskaintzen duen dirulaguntzari esker Pleka Gizon trofeoa sortu da aurtun. Lehenbiziko trofeo hau jujala lanetan aritzen den Pantxoa Matxikotek eskuratu du. Aipatu beharra da ere Pleka Trin-

ketekoek web gunea zabaldu dutela. Helbide huntan finaletako hainbat argazki ikusten ahaliko dituzue: www.pleka.fr.st.

Ondokolehiaketa esku huska xokoan jokatu da eta maiatzaren 5ean hastekoa da.

Joko Berri finalak

Sarako Izarra pilota elkarteak antolatu duen Joko Berri txapelketaren finalak larunbat huntan, apirilaren 27an jokatu dira polikiroldegian. Pilota partiden ondotik, elkartekoek afaria antolatua dute.

Gaupasa apirilaren 30ean

Urte guziz bezala, aurtun ere Sarako Gaztetxeak Gau Pasa antolatzen du maiatzaren 1eko bezperan. Apirilaren 30ean beraz, gaueko 8etatik goiti, lau musika talde arituko dira herriko plazan. Lehenik, metal doinuak eskaintzen dituen Baionako Eelam taldeak hasi beharko du giroa berotzen, ondotik, rock gogorra egiten duten bertze bi taldea arituko direlarik: bigarren aldikotz etorriko zaigun hego Euskal Herriko Ost taldea, eta Okzitaniako Tolosako Psykup talde indartsua. Azkenik eta gaua on-



Neskak, Aña Dutournier, Gaele Indaburu, Andrey Arribillaga, Mirentxu Azkarraga, Rosine Saint Martin eta Aña Mari Dutournier. Lehen mailako finalak, Lalou Oiarzabal, Pantxoa Housset, Pantxoa Matxikote, Alain Ezkurra, Rémi Terrer eta Henri Dutournier.

gi baino hobeki bururatzeke, aspaldiko La Polla taldea arituko zaigu, punk doinuez osatu "Bocas" diskoaren aurkezpena eginez. Sartzea 8 eurotan izanen da.

Presoen aldeko elgarretaratzeak

